

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTARONGO UDALA

Behin-behineko onarpena ematea 2017ko zerga ordenantzen aldaketari

Lantarongo Udalbatzak 2016ko urriaren 13an egindako bilkuran erabaki zuen behin-behineko onarpena ematea ondasun higiezin zerga eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen dituzten ordenantzen aldaketari, eta, orobat, luzamendua ematea gainerako zerga ordenantzen indarraldiari.

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoaren ildotik, behin-behineko onarpena eman zaien zerga ordenantzen aldaketen testu osoa udaleko idazkaritzan dago jendaurrean, astelehenetik ostiralera, bulegoko orduetan, interesdunek aukera izan dezaten espedienteaz aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko, hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Halaber, jakinarazten da ezen jendaurreko epea igaro eta erabaki horren aurka erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko onarpena behin betiko bihurtuko dela.

Komunioi, 2016ko urriaren 14a

Alkatea

JAVIER URIARTE JAIRO